

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Donostiako Udal Gobernuak asfaltatze kanpaina bat onartu du  
1,7 milioi euroren balioaz

- **Tolosa hiribidea asfaltzeko lanak datozen egunetan hasiko dira**

Udal Gobernuak errepidea asfaltatu eta zuloak konpontzeko lau lote onartuko ditu, hiriko hainbat lekutan egiteko lanak, **1.667.190 euroren** balioaz.

Marisol Garmendia Gune Publikoetako zinegotzi sozialistak adierazi duenez, “kontratazio legea onartu ostean arazoak eta atzerapenak konpondu ondoren, lehiaketara atera ditugu lau lote, nabarmen hobetuko dutenak hiriko hainbat kaletako asfaltoa, aspalditik konponketa behar zutenak, egia esatera. Horietako bat Tolosa hiribidea da, bus erreia bereziki, egunero autobus ugari erabiltzen dutenez asfaltoa hondatuta duena”.

Garmendiak erantsi duenez, “berehala hasiko gara Tolosa hiribidearen asfaltoa berritzen; 500 m errepide, bi fasetan. Fase bakoitzeko lanek 3 aste iraungo dute, eta obrak datozen egunetan hasiko dira”.

I lotea onartu da **399.730 euroren** balioaz eta bi hilabeteko exekuzio epeaz. Errepideko zuloak konponduko dira hainbat errepidetako zoladuran. Zehazki, leku hauetan:

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



- **Intxaurrondo** (Tolarieta bidea, Zarategi pasealekua, Basotxiki kalea, Julimasene kalea, Zubiaurre pasealekua, Baratzategi pasealekua, Galizia pasealekua, Beltran Pagola kalea, Buztintxulo kalea eta Otxoki pasealekua).
- **Gros** (Miguel Imaz kalea, Usandizaga kalea, Euskadi plaza, Kolon pasealekua, Ronda kalea, Secundino Esnaola kalea, Miserikordia kalea, Trueba kalea, Galtzada Nagusia, Bermingham kalea, Jose Arana kalea eta Marino Tabuyo kalea).
- **Egia** (Mandasko Dukea pasealekua, Xabier Aizarna pasealekua, Karmengo Ama kalea, Ametzagaina kalea eta Jaialai kalea)
- **Erdialdea** (Soraluze kalea, Salamanca pasealekua, Erregina Erregeordearen kalea, Pañafiorida kalea, Okendo kalea, Argentina Errepublikaren kalea, Easo kalea, Zubieta kalea, Arrasate kalea, San Martin kalea, Prim kalea, San Roke kalea, eta Beloka pasealekua)
- **Antigua** (Itsasargi pasealekua, Satrustegi etorbidea, Eduardo Chillida pasealekua, Igeldo pasealekua, Wiesbaden kalea, Ondarreta pasealekua, Vitoria/Gasteiz kalea, Zumalakarregi etorbidea, Antonio Arzak kalea, Resurrección María de Azkue kalea, Zarautz kalea, Matia kalea, Erregezaintza kalea, Elias Salaberria kalea eta Urnieta kalea)

Zuloak konpontzeko lanak 57 kale eta pasealekutan egingo dira guztira, errepideko zoladuraren egoera hobetzeko.

II. lotea, **889.730 euroko** aurrekontua duena, gutxienez 90 metro linealeko luzera duten errepideko tarte osoak asfaltatzeko lanetara bideratuko da.

- Beloka pasealekua
- Zorroaga pasealekua (partziala)
- Portuene kalea (partziala)
- Aizkorri kalea (2 zati partzial)
- Autonomia kalea (partziala)
- Foruen pasealekua (partziala)
- Jose Arana kalea (partziala)
- Zemoriya kalea (partziala)
- Ategorrieta etorbidea (partziala)
- Errotaburu pasealekua (partziala)
- Pilotegi bidea (partziala)
- Mons pasealekua (partziala)
- Baratzategi pasealekua (partziala)
- Galizia pasealekua (partziala)
- Otxoki pasealekua (partziala)
- Sibilika kalea (partziala)
- Zarategi kalea (2 zati partzial)
- Martutene pasealekua (partziala)
- Jose Elozegi Alkatearen etorbidea (partziala)

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Kanpaina honetan, guztira, 20 kale edo pasealekuren asfaltoa osorik edo zatiren batean berrituko da.

Gobernu Batzordeak onartzen dituenean, lote hauen lizitazioa argitaratuko da; beraz, legezko epeak kontuan hartuta, urte honen amaieran edo 2020ko hasieran esleitu ahal izango dira.

V. (**299.812 euro**) eta VI. (**77.652 euro**) loteek, berriz, Miramongo parte teknologikoaren eta Igeldoko Pillotegi bidearen errepidea berritzeko lanei egiten diete erreferentzia.

Gune Publikoetako zinegotziak zera adierazi du: “prozedura luzeegi hau arintzeko formula berri bat ari gara aztertzen, asfaltoaren egoera hobetzeko lan hauek egiteko; agian, programa kontratu batez baliatuko gara, proiektuak bizkortzeko aukera emango baitu”.